



Nire bizitza
Nire heriotza
Nire aukera

ELKARRIZKETA

Ignazio Aranguren,

Vianako Printzea saria:

«*Antzerkiak badu indar sekretu bat, bertzek ez duena: 'Orain, hemen eta zuretako!'*»

ERREPORTAJEA

Jaio ginen ongi hiltzeko

EAEko Legebiltzarrak heriotza duinaren legea onartzeak gaiari buruzko eztabaida berritza ekarri du



EZTABAIDA

N-1eko bidesaria:
Bideragarria batzuentzat,
astuna besteentzat

NORMALIZAZIOA

Iusplaza webgunea,
Zuzenbidea euskaraz lantzeko
esparru berria

ANDRES URRUTIA

INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

Administrazio-hizkera
lantzeko blog berria IVAPen

GORKA J. PALAZIO

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Iusplaza webgunea, zuzenbidea euskaraz lantzeko esparru berria

ANDRES URRUTIA

ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIA

S arri askotan gertatzen da euskal letretan halako bereizketa funsgabea, euskara bera eta euskaraz landutako arlo edo diziplinak uztartu ezin balira legez. Izan ere, aspaldikoak dira euskara eta Zuzenbidea estekatzekeo premiak. Are zehatzago esateko, euskarak berak hainbat lurraldetan ofiziala izateko aukera izan duenetik.

Hainbatez, euskararen ofizialtasuna duela hogeita hamartsu urte aldarrikatu zenetik Euskal Herriko Nafarroan nahiz Euskal Autonomia Erkidegoan, horrek ekarri du, besteak beste, Zuzenbidea, alegia, guztion elkarbizitza arautzen duten manu horiek, euskaraz ere ematea.

Hortaz, prozesu jakin batean, euskarak, arian-arian, aldizkari ofizialetan ez ezik, zuzenbidearen jardunean eta irakaskuntzan bere zereginak zabaldu ditu, oraintsu arte ezezagunak zitzaizkion alorrak bereganatu dituela. Begien bistakoa denez, horrek egundoko testugintza ekarri dio euskarari, eta horretan batu dira lehenik zituen adierazpide berezkoak eta aurrera egin ahala, asmatu, ondu eta finkatu direnak.

Testu multzo hori sortzeko iturburuetan eragile asko aritu dira urtetan, eta horien ekarpenak ere aintzat hartzeko modukoak dira. Egun, zorionez, badira ekarpen horiek sailkatzeko eta uztartzeko baliabide berriak, batik bat, erabiltzailearen eskura jartzeko aurreko horiek.

Legelari, irakasle, itzultzaile, bitartekari linguistikoak, ikasleak... oro dira horien hartzaile. Hala ere, hartzeko une

horretan ezin baztertu oraingo jakituriaik asmatu dituenak, hots, Zuzenbidea eta hizkuntza biltzeko ahaleginak, jurilinguistika delakoaren bidez.

Egin-eginean ere, eduki hori da *Iusplaza* webgune berriak eskaintzen duena, bertara biltzen baitira bi horiek, Zuzenbidea eta hizkuntza, bi-biok modu bateratuan eman beharra baitago euskararen normalizazio bidean.

Arean ere, webgune honen bultzatzaile nagusia da Zuzenbidearen Euskal Akademia, beste eragile lehenetsi batzuekin batera. Aipatzekoak dira Deustuko Unibertsitatea, Eusko Jaurlaritzaren Administrazio eta Justizia Saila, IVAP, Bizkaiko Foru Aldundia, BBK kutxa eta abar.

Hor kausituko ditu erabiltzaileak halako kontuak. Hizkuntzari dagokiola, begien



NORMALIZAZIOA

bistakoa izango zaio *Iusplaza* corpusa (7.901.017 hitz kopurua), eta bertan bilaketak egiteko aukerak, testua zein tesuinguruak jasotzeko erraztasunarekin.

Gero, arloz arlo, euskaraz landutako Zuzenbideko materialak ageri dira, eta beraietan legeria, formularioak, bibliografia eta doktrina: guztira, 1.125 erreferentzia, euskal legelariak eskura izan ditzan Zuzenbidearen teoria zein praktikaren lanabesak; aldi berean ere, gai honetan euskaraz sorturiko bibliografia, zer non erraz antzeman ahal dezan.

Bada, bestalde, legelari euskaldunari egundoko berrikuntza ematen diona, hau da, gaztelaniaz zein euskaraz emandako adiera juridiko hori euskaratzea. Horretarako baliatu da urte luzetan Deustuko Unibertsitatean landuriko es-

perientzia eta hortxe dago, luze-zabal, hiztegi elebidun berria, zerrenda hutsetik harago doana, aurkibide analitiko esanguratsua osatu arte, bertan direla bi hizkuntzen arteko ordainak eta horien kokapen testualak, araubide eta guzti. Aldi berean, hortxe daude Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batutik* aukeraturiko sarrerak eta azpisarrerak, esanahi juridikoa daukatenak.

Iusplaza webgunean sakonago murgilduz gero, hurrenez hurren agertuko zaizkio erabiltzaileari egungo jurilinguistikaren ikuspegitik landutako materialak, hala nola Zuzenbidearen hizkuntzari buruzkoak eta hizkuntzaren Zuzenbidearenak, diziplinartekotasunak agindu bezalaxe.


Hitz batez esateko, eta webgunean bertan agertzen denez, *Iusplaza* hau da: eragile juridiko euskaldunentzat, egun dagoen eskaintza zabaldunahian, berebiziko ahalegina, etorkizunean ere hedatuz eta zabalduz joango dena. Esku-erakutsi zabala, aurkezpenean bertan esaten denez, eta guztion artean egitekoa, guztion ekarpenak izango baitira aintzat hartzekoak *Iusplaza* webgunearen eraikitze prozesuan.

Webgunearen aurkezpenean jasotzen den bezalaxe: *Iusplaza ez da webgune itxia, ezta hurrik eman ere. Guztiz irekita dago, eta gerogarreneko garapenek horixe erakutsiko dute. Zinez, Zuzenbidearen Euskal Akademiak eta beste eragileek euren gain konpromisoa hartzen dute halako garapenak burutzeko.* ■

Iusplaza corpusa linguistiko-juridikoa.

Hiztegiak.

Zuzenbidea arloz arlo.



Zuzenbidea, hizkuntzaren ikuspegitik.